

# Prekaritatearen kontra borrokatu

1995eko “zatiketa sozialetik” 2003ko in-sekunitaterat : 1995eko Chirac hautagaiak zatiketa soziala salatu zuen gaitz handit-zat hartuz. 2002ko Chirac hautagaiak berriz, erranikoa azkartu zuen “insekuri-tatea-inmigrazioa-gazteak” hirukotea lo-tuz. Prekarioak, biktima izatetik hobendunak bilakatu dira. Hala ere azpimarratzekoa da Baionako Herriko et-xeko jokamoldea : azken erroldan hiriak 40000 biztanleko heina lortu zuen egoitza finkorik gabekoak eta azokariak kontatuz.

Zailtasunetan diren jendeek jasaiten duten errepresioa handia da (Sarkozy le-gea), bide berean aldarrikapen zenbait di-tuzten elkarteenganako tolerantzia maila apaldu da.

Ezgonkortasuna orokortzen ari da (lana, bizitegia) eta larrialdi egoera gero eta usuagoak tratatu behar dituzten borro-ka eta sustengu elkarteek baztertu berriak ikusten dituzte. Baztertu horiek erresis-tentzi, konzientzi hartze handiagoa dute : lehengo egoeran hobeki kokatuak ziren „barneratuak“ baitziren. Iraunpen luzeko baztertuek aldiz „erresistentzi ekimen“ gutti bururatzten dituzte morala eta egoera ahulagoagatik.

Ororen interesa da jende horiek be-ren burua epe labur eta luzean koka deza-ten (mafia gune horietan indartzen baita) baina baliabiadeak eskasegiak dira. Pobrezia, politika ultraliberal baten (en-pleguaren malgutzea) ondorioa da, honek jendearen balioa produktibitate finantzia-rioaren menean ezartzen baitu. Estatuko

## Bizitegiak Baionan, zenbaki batzuk

- 200 eta 300 pertso-nen inguru „Eguneko zen-trotik“ (Point jour) pasat-zen dira egun guziz (egoitzarik gabekoak dutxatzen ahal dira, higie-ne erlatibo bat atxikiz)
- 18 etxe erosteko gal-de badelarik Euskal Herrian, bakar bat dago salgai ;
- 3000 etxebizitza so-zialen eskaera BAM-en.

erakundeak eta elkarteak “zalantzan jarri” behar ez den politikaren eraginen aurka borrokatzen dira. Sozialari doazkion aur-rekontu eta diru laguntzak apaltzen doaz-tenez, matematikoki logikoa da (baina moralki onartezina) prekaritatea zabalt-zea.

Erakundeek ekartzen dituzten irten-bideak arras urriak dira muturreko preka-ritateari doakionez. Sindikatuak ez dira borroka horretaz biziki axolatzen.


Bazterketa eta pobreziaren aurkako bor-roka epe luzeko logikoan kokatzen da eta ez politika gizonen izaten duten berehala-ko eraginkortasunaren beharrea (prosti-tuzio guneen lekutzea berintsertziarako neurriak hartu baino).

Michel Bernadets-ek (AC Euskal Herri) Assedic zerrendetatikako kentzeak eragiten dituen PARE prozedura salatu du. Errekurtso komisioen kopurua hiru-

egunen buruan larritasun aurkiko egoera baten aitortpenaren ondotik (Baionako besten 2 egun aitzin administratiboki kendua izanen dena). Jabea eta Herriko etxeak ez dute ber alokatzeko proposa-men onargarririk egin. Baliabide gutti izanik ere, kanporatze aginduaren aurka-ko desmartzak burutu dituzte epaitegia-ren gana joanez.

Kasu konkretu honek parte-hartzai-

## KANPORAKETAK ITZULI DIRA



koiztu da departamenduan dossier guzi horiek lantzeko.

### Hitza berreskuratu :

Jean-Baptiste Eyraud-k *No Vox* mugimendukoa elkartearen egintza aurkeztu du. Prekarioen bermobilizatzea bultzatzen du mugimendu altermondialistetan hauen boza entzutea izateko. Egiatzko demokrazia parte-hartzaile batek ezin du egiatzko errepresentatibitatearen ekonomia egin : prekario eta baztertueri doakie-nez, arras zaila da beren burua gutiesteko joera ikusiz. Gehienetan prekarioen mobi-lizazioa kanpoko ekimen batetik dator bere baitariko antolakuntza batetik baino.

Montpellier-ko adibidea : dinamika bat sortu da mikro-egitasmu batzuen in-guruan : izen-emaite kolektiboak ASSE-DIC-etan. Okupatze ekintza zenbait se-gurtasun indarrekin aurkakotasun pazifikoa izanez. Ekintza kolektibo hauek denek sumatu duten botere bat sortu dute, dignitate eta ardura emanez mugimen-duetan sartutakoei. Alabaina prekarioak, hetsiturik, usu ekintza indibidual bortitze-tarat helduak dira, horiek gaizkile bilaka-tuz. Zorigaitzez ekintza horiek ez dira eredu gisa hedatu eta zaila da horiek erre-ferentziak bilakatzea.

Gilles eta Rachel-ek beren egoera aipatu dute : beren etxebizitzatik kanpo-ratuak izateko arrizkuan dira 2003ko maiatzaren 3tik landa, erran nahi baita 13

leen arreta handia piztu du.

DAL Euskal Herri-ko arduradunak aipatu du bizitegi hutsen errekuiperatze legea ez dela aplikatua. Lan iraukorra-ren burutzeko zailtasuna aipatu du mobi-lizapen eskasa baldin bada.

### Zertan oinarritu ?

Mementu berean bertze atelier batean ez-tabaidatua den Eskubide sozialen karta gainean. Komunikabideen interesa, era-bakiorra ikusia da iritzi publiko eta politi-koa hunkitzeko. Atelier honetan zaila izan da egoeraren ezaugarritzetik askat-zea, politikagintzak hartu sekuritate opzio honek larritzen duena. Zaila da egiatzko ofentsiba plantan ezartzea elkarteek egu-nez egun funtzionatzeko izaten dituzten trabak ikusiz. Frente guzietan burutu be-harreko lana beharrezkoa ikusia da : ko-munikabideen epeltasuna, Eskubide Sozialeko Kartaren eskasiek egoera hau larritzen dute.

### Proposamen konkretuak :

- “Behartuzko Bail” ekintzak burutu : egoitzak okupatu agentzi inmobiliarioare-kin prozedura eta negoziaketa bultzatze-ko.
- Tokiko ordezkapena : bizitegirik gabe-koen (SDF) partehartzea eztabaida batera gomiatu (elkarteen ekintzek interesatuen beharrekin bat egiten ote dute ?).